TERMINOEN BILAKETA

Euskalterm
Terminologia Banku Publikoa

Goiko menuan **BILAKETA** erlaitza hautatu

- Bilaketa arrunta eta bilaketa aurreratua dituzu eskura.

Bilaketa arrunta

Euskalterm
Terminologia Banku Publikoa

[Sartu bilaketa egiteko beharrezkoak diren kontsulta-irizpideak]

- **Hizkuntza:** “Guztiak” hautatuz gero, hizkuntza guztietan bilatuko du batera.

- **Testua**: terminoa bilatzeko testu-zatia idatzi.
  - Normalean, preposizioak, artikuluak, etab. ez dira idazten.
  - “%” komodina erabil daiteke karaktere bat edo gehiago ordezkatzeko.
  - Laukian testua idatzi ahala proposamenak agertuko dira, eta datu-bankuan jasota dauden terminoak erakutsiko ditu.

Bilaketa arrunta

Euskalterm
Terminologia Banku Publikoa

- **Non bilatu:** bilatzen den testua non kokatzen den adierazteko aukerak zehazten ditu hauen bidez: *du, hasieran, amaieran, bilaketa zehatza, hitz-hasieran edo hitz-amaieran.*



- **Sailkapena(k):** bilaketa zein jakintza-arlotan egin nahi duzun zehatz dezakezu. Arlo bat baino gehiago hauta dezakezu. Besterik adierazi ezean, guztietan egingo du bilaketa.



Bilaketa aurreratua

Euskalterm
Terminologia Banku Publikoa

Definizioan: testua terminoen definizioetan bilatzeko aukera eskaintzen du.



TBak onartutako hiztegiak: soilik Terminologia Batzordeak onartutako hiztegietan egingo da bilaketa. Batzordeak onartutako guztiak hauta daitezke edo hiztegi jakin batzuk banan-banan.

Oharrean: testua terminoen oharretan bilatzeko aukera eskaintzen du.

GARBITU botoia sakatuta, hautatutako bilaketa-irizpide guztiak ezabatuko dira.

Bilaketa

Euskalterm
Terminologia Banku Publikoa

BILATU botoia sakatuta, hautatutako irizpideen araberako bilaketa egingo da. Ondoren, aurkitutako terminoen zerrenda bistaratuko da. Zerrenda horren PDFa deskarga daiteke ikonoan klik eginez.

Ponderazio-markak

Terminoen ondoan, ponderazio-markak ager daitezke.

Hauexek dira Terminologia Batzordeak onartutako ponderazio-markak eta esanahiak:

(0) Baztertu beharreko terminoa (Terminologia Batzordeak onartzen ez duena)

(3) Termino onartua (baina ez lehenetsia, beste bat gomendatzen delako)

(4) Termino behin-behinean normalizatua/gomendatua (Terminologia Batzordearen onespenaren zain)

(4) EU Termino normalizatua/gomendatua

Bilaketa

Euskalterm
Terminologia Banku Publikoa

Ikono honetan klik bikoitza eginez, fitxaren edukia arbelean kopiatuko da.

Informazioa sare sozialetan partekatzeko ikonoa eskaintzen da eskuinean, baita PDFa sortzekoa ere.

aerosorgailu

Industria - Energia berriztagarriak - Haize-energia

eu **haize-sorgailu** (4) Eu
aerosorgailu (4) Eu

Definizioa

Haize-turbina baten eta sorgailu elektriko baten bidez haizearen energia zinetikoa energia elektriko bihurtzen duen sorgailua.

es generador eólico
aerogenerador
fr aérogénérateur
en wind generator
aerogenerator

[Energia Berriztagarriak Hiztegia] [2015]

Fitxa bat irekitzean, informazio terminologikoa eskainiko da.

Ikono honetan klik eginez, itzultzaile neuronalak definizioa itzuliko du.